

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ESKUERNAGAKO UDALA

Lizitaziora ateratzea udal tabernaren ustiaketa

Udalbatzak, 2019ko uztailaren 9an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen Gernikako Arbola plazako 5. zenbakiko etxabeen dagoen udal tabernaren ustiaketa prozedura ireki bidez eta esleipenerako hainbat irizpiderekin kontratatzeko espedientea onestea. Hona hemen horretarako baldintzak:

1. Erakunde esleitzaila:

a) Eskuernagako Udala.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

– Eskuernagako Udalaren bulegoak, 09:00etatik 14:00etara. (Agirien paperezko kopia eskuratu ahal izango da).

– Egoitza: Errementari kalea, 15, Eskuernaga (01307).

– Telefonoa: 945 609024.

– Posta elektronikoa: avillabuena@ayto.araba.eus.

– Agiriak eta informazioa lortzeko epemuga: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte (hogeita hamar egun natural iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera; azken eguna baliogabea bada, epea hurrengo egun balioduneko 14:00ak arte luzatuko da).

2. Kontratuaren xedea:

a) Gernikako Arbola plazako 5. zenbakiko etxabeen dagoen udal taberna ustiatzea.

b) Lizitazio mota: lokalaren errenta hilabetean 400 euro (BEZa barne) izango da, goraka.

3. Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura mota: irekia, hainbat esleipen irizpiderekin. Irizpideen ebaluazioa agirian dago zehaztuta.

c) Kontratuaren iraupena: kontratuak, izenpetzen denetik aurrera, bi urteko iraupena izango du, eta beste bi urtez luza daiteke.

d) Bermeak. Ez da behin-behineko bermerik aurkeztu behar, eta behin betiko bermea 3.000 euro izango da.

4. Eskaintzak aurkeztea:

a) Epemuga: hogeita hamar egun natural, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera; azken eguna baliogabea bada, epea hurrengo egun balioduneko 14:00ak arte luzatuko da.

b) Aurkezteko lekua: eskaintzak Eskuernagako udal idazkaritzan aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, bulego orduetan (09:00etatik 14:00etara).

– Egoitza: Errementari kalea, 15, Eskuernaga (01307).

– Telefonoa: 945 609024.

— Posta bulegotik ere aurkez daiteke eskaintza; hala eginez gero, posta elektronikoz jakinarazi behar da, egunean bertan, 14:00ak baino lehen, eskaintza igorri dela. Nahitaezkoa da baldintza hori betetzea eskaintza onartua izateko. Eskaintzak aurkezteko epea bukatzen denetik 10 egun igarotakoan, ez da onartuko postaz bidalitako eskaintzarik.

c) Aurkeztu beharreko agiriak: baldintzen agirian adierazten direnak, eta agiri horretan jasotako ereduak.

Eskuernaga, 2019ko uztailaren 10a

Alkatea

IÑAKI PÉREZ BERRUECO